

NIMMO

BALIO PROPOSAMENA

Ez al zaizue inoiz gertatu festa batean lagunen bat mugikorrean bateriarik gabe gelditzea? Edo lokalizatu ezin izana edozer arrazoirengatik?


Horrelako egoera baten aurrean, gure pultsera izatearekin soilik ez zenuke hortaz kezkatu beharko. Kasu hauetan, badakigu urduritasuna eta kezka nabarmena dela pertsonengan, gu ere egoera honen aurrean aurkitu garelako. Beraz, ez dago “NIMMO pultsera” erosi baino irtenbide hoberik, batez ere, denon segurtasuna eta ongizatea bermatzeko. Ondorioz, gure bezeroei konpontzen dizkigun arazoak anitzak dira, lagunekin irtetean edo gauzez ateratzean konfidantza eta lasaitasuna edukitzetik, zure gertukoak seguru daudela eta ez zaiela ezer gertatu jakitera arte.



Gainera, gauean aisialdian parte hartzen duen jendea, askotan desagertzen dira eremua ezagutzen ez dutelako edo, besterik gabe, larritu eta jende artean bere lagunak galdu egiten dituztelako. Horregatik, gure pultsera disenatzea erabaki genuen eta geroztik, udalekin elkarlanean aritzea erabaki genuen gure bezeroek herriko jaietan gure “pultsera” eskaintzeko postuak izan ditzaten. Pultsera ahalik eta sinpleena izango da jendea ez ohartarazteko daramazula.

Pultsera honek eskeintzen dituen abantailak honako hauek dira besteak beste:

1. **Lokalizazioa:** Botoia sakatzearekin bakarrik zure laguna lokalizatu dezakezu.
2. **Erraztasuna:** Ez duzu pultsera baino ezer gehiago beharko; zure lagunak aurkitzeko edo larrialdi batean poliziarri deitzeko baliabideak eskeintzen baititu.
3. **Segurtasuna:** gure segurtasuna lortzeko eta beldurrari aurre egiteko balio du.
4. **Lasaitasuna:** edozer gertatzekotan lasaiago egongo zarela ziurtatzen du.



KOMIKIA

